

LIZITAZIO-IRAGARKIA

2024ko otsailaren 14ko **Gobernu Batzordearen akordioaren** ondorioz, iragarki honek **BARALDE kalean z.g. dagoen HIGIEZINA UDAL-IGERILEKUETAKO TABERNA-JATETXEA** izateko lizitazioa esleitzeko deialdia dakar, datu hauen arabera:

1.- Erakunde esleitzaila: datu orokorrak eta informazioa eskuratzeko datuak:

- a) Erakundea: **Alegria-Dulantziko Udala.**
- b) Dokumentazioa eta informazioa eskuratzeko:
 - 1.- Bulegoa: **Alegria-Dulantziko udaletxea.**
 - 2.- Helbidea: **Herriko plaza, 1.**
 - 3.- Udalerria eta posta-kodea: **01240 - Alegria-Dulantzi.**
 - 4.- Tel.: **945-420027.**
 - 5.- Telefax-zk.: **945-420394.**
 - 6.- Helbide elektronikoa: aalegria.general@ayto.araba.eus
 - 7.- Kontratugilearen profilaren Interneteko helbidea: www.contratacion.euskadi.eus eta www.alegria-dulantzi.eus
 - 8.- Dokumentazioa eta informazioa eskuratzeko epemuga: **eskaintzak aurkezteko epea bukatu baino 3 egun lehenago.**
- c) Espediente-zenbakia: **251/2024.**

2.- Kontratuaren xedea:

- Kontratu-mota: **errentamendua.**
- b) Xedearen deskribapena: **udal-igerilekuetako taberna-jatetxearen errentamendua.**
- c) Aurkezteko tokia:
 - 1.- Helbidea: **Baralde, z.g.**
 - 2.- Udalerria eta posta-kodea: **01240 - Alegria-Dulantzi.**
- d) Errentamendu-kontratuaren epea: **2 urte.**
- e) Luzapen-onarpena: **bai.**

3.- Izapidetzea eta prozedura:

- a) Izapidetzea: **arrunta.**
- b) Prozedura: **irekia.**
- c) Esleipen-irizpideak: **oro har eskaintzarik onena egiten duen lizitatzailerak lortuko du esleipena, baldintza-agiri honetan ezartzen diren irizpideak kontuan hartuta, haren prezioari soilik erreparatu gabe.**

Hauetara dira eskaintza balioesteko irizpide objektiboak (eta kontratuaren xedeari lotutakoak):

- Errentamendu-kanona: gehienez 30 puntu.
Gehienezko puntuazioa eskaintza ekonomiko onenari emango zaio, eta gainerako eskaintzen puntuazioa formula honen bidez zenbatetsiko da:
$$Lp = (Eo/Le) \times 30$$

Lp izanik: enpresa lizitatzaileraren puntuazioa.
Le = enpresa lizitatzaileraren eskaintza.
Eo = eskaintza onena.
Lizitazio-motari egokituriko eskaintzek ZERO puntu jasoko dute atal honetan.
- Jabetzan proposaturiko hobekuntzak:
 - Gehienez, 40 puntu, arrazoi honegatik:
Udalaren interesekotzat jotzen diren eta instalazioan gizarte-, kultura- eta kirol-bizitza sustatzen duten jarduerak ekonomikoak egitea.

Gehienezko puntuazioa eskaintza ekonomiko onenari emango zaio, eta gainerako eskaintzen puntuazioa formula honen bidez zenbatetsiko da:

$$Lp = (Eo/Le) \times 40$$

Lp izanik: enpresa lizitatzaillearen puntuazioa.

Le = enpresa lizitatzaillearen eskaintza.

Eo = eskaintza onena.

Lizitazio-motari egokituriko eskaintzek ZERO puntu jasoko dute atal honetan.

Kontratuaren urteko aldi bakoitzean hobekuntza osoa egin ezean, esleipendunak gainerako zenbatekoa ordaindu beharko dio Udalari, harik eta egindako eskaintzara iritsi arte.

- Gehienez 20 puntu, arrazoi hauengatik:
 - Kafea emateko zerbitzua: 5 puntu.
 - Izoziak emateko zerbitzua: 5 puntu.
 - Mokadu-karta zerbitzua: 5 puntu.
 - Sandwich edo hanburgesak: 5 puntu.
- Zerbitzuari atxikitako langileen esperientzia: gehienez 10 puntu.
 - Kontratatzaileak gutxienez 6 hilabeteko esperientzia egiaztatua: 5 puntu.
 - Zerbitzuan gutxienez 6 hilabete edo gehiagoko esperientzia duen beste pertsona bat egotea: 5 puntu.

Berdinketa izanez gero, puntuazio onena lortu duten eskaintzen arteko zozketa egingo da.

4.- Errentamenduaren zenbatekoa:

Zenbateko garbia: **2.750 euro**. Ehuneko 21eko BEZa: **577,50 euro**. Zenbatekoa guztira: **3.327,50 euro urteko**.

5.- Kontratatzailearen baldintza zehatzak:

Enpresariaren kaudimena:

- Enpresariaren **kaudimen ekonomiko eta finantzarioa** bitarteko hauetako baten edo hainbaten bidez egiaztatu beharko da:
 - a) Urteko negozio-bolumena, edo urteko negozio-bolumen kontratuari dagokion eremuan, azken hiru ekitaldien barruan ekitaldi onenari dagokiona, eratzeko edo enpresaburuaren jarduerak hasteko dataren arabera eta eskaintzak aurkezteko dataren arabera.
 - b) Egokia den kasuetan, lanbide-arriskuengatik erantzukizun zibileko aseguruia dagoela egiaztatzeak agiria.
- Enpresariaren **kaudimen tekniko** bide hauetako baten edo hainbaten bidez egiaztatu beharko da:
 - a) Azken hiru urteetan egindako lan nagusien zerrenda, horien zenbatekoa, datak eta hartzailea publiko zein pribatuak adierazita. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak emandako edo onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako zerbitzuak edo lanak; hartzailea subjektu pribatua denean, hark emandako ziurtagiri baten bidez edo, ziurtagiririk ezean, enpresariaren adierazpenaren bidez; hala badagokio, agintari eskudunak zuzenean helaraziko dizkio ziurtagiri horiek kontratazio-organismoari.
 - b) Enpresak kontratua egikaritzeko dituen teknikariak edo erakunde teknikoak, enpresakoak izan edo ez.



6.- Eskaintzen aurkezpena:

Epemuga: **hilabete, lizitazio-iragarkia Kontratazio Publikoa Euskadin Plataforman agertu eta hurrengo egunetik aurrera.**

b) Euskarria: **elektronikoa.**

c) Lekua:

1.- Bulegoa: **erregistro orokorra.**

2.- Helbidea: **Herriko plaza, 1.**

3.- Udalerria eta posta-kodea: **01240 - Alegria-Dulantzi.**

4.- Helbide elektronikoa: aalegria.general@ayto.araba.eus

d) Lizitatuzaileak bere eskaintzari eutsi beharreko epea: **hilabete 1.**

7.- Eskaintzen irekiera:

a) Deskribapena: **kontratazio-mahaia.**

b) Helbidea: **Herriko plaza, 1.**

c) Udalerria eta posta-kodea: **01240 - Alegria-Dulantzi.**

d) Eguna: **proposamenak aurkezteko epea amaitu osteko hirugarren egun balioduna.**

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA